

«IDEK ETA ZABAL GOGO-BIHOTZAK»

Fr. Luis VILLASANTE

Lafitte-Ithurralde-ren liburuska txairoa duzu berau, 1974ean aterea. Luze-laburrez ttipia: 72 orrialde, baina letra xume eta trinkoz ehundua. Bertan agertu digu egileak bere ikuspena, hots, munduari, biziari eta gizonari buruz duen ikuspena. Ikuspen hori —ez da zer esanik—, kristau fedetik da hartua, kristau fedean oinarritua.

Lafitte jaunak lurrean izan ohi ditu zangoak; ez da, alegia, ameskerietan galtzen diren horietakoa. Gauzen ongaitzak, argiune eta ilunguneak zorrotz miatzen ditu. Ez dizu zoro-zoro eta tarrapataka dena bedeinkatuko. Gauzak, diren bezala ezagutu eta izendatu nahi ditu, errealismo osoz. Halaz guztiz, azken finean, ikuspen hori arraia da, optimismoz gantzutua.

Zein diren kristauaren egiteko handiak egungo munduan, zer-nolako planta hartu behar duen fededunak gaurko tenorean, egungo tirabira eta gertakari handien aintzinean: horra, labur, liburuska sotil honetan erakutsi nahi diguna. Batez ere gazteei zuzendurik dago.

Egilea ohartu da mundu berri batera buruz abian doala gaur gizadia. Eta oren handi honi dagokion bezalako erantzuna eskatzen digu. Gaur badira aurrerapenak, eta bai atzerapenak ere, badira esperantzak eta bai mehatxu lazarriak. Dena den, idekidurazko jarrera eskatzen digu Lafitte jaunak.

Zazpi kapituluz osatua da liburuska. Horra, laburzki, bakoitzaren muina.

I. Kristauak estimu handitan du bizitze berria. Fedeak irakatsirik badaki bizitze horren geroa. Bizitzea onartu eta laguntzea: horra gure eginbeharra. Eta debeku batzuk jartzen bazaizkigu, ez dezagula, arren, ahantz: horiek ere bizitzea laguntzeko dira!

II. Kristauari maiz botatzen zaio zirto hau aurpegira: zeruagatik lurra uzten duela. Kristau legeko bi agindu nagusiak, ordea, honako hauek dituzu: Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea. Bi amodio hauek ezin hautsizko lokarritz daude elkarrekin lotuak. Ez dezagun Jainkotzat har ez dirua, ez beste ezer.

Ausartak, bai, baina arriskua maitatu gabe. Gogoan har dezagun Kristo ez zela etorri gizon egiteko, gizona salbatzeko baizik.

III. Oztopoak garaitzeko, eredu baten beharra dugu. Eta hor dugu horretarako Kristo. Izan gaitezen Hari atxikiak, eta gainerako guztia berez bezala etorriko da. Baina Satan ere presente da munduan eta ez dago bat ere lo. Dirua, ohorea, atsegina: horra hark hartzen dituen laguntzaileak.

IV. Jainkoak ez du bere obra bururatu; gure esku utzi du, gerok burura dezagun. Aurrera joatea dagokigu. Baina aurrerapena deitzen den oro ez da beti egiazko aurrerapena. Gure zibilizazioak materiazko ondasunak gehitze kontuan aurrera jo du; izpirituzkoetan, ordea, sarri atzerakoi dabil. Usna ona behar gauzak ongi bereizten jakiteko.

V. Eboluzioa. Munduan oldar bat nabari da, hobekuntzara buruz dabilena. Baina nork aldarazten du mundua? Eta nork seinalatzen dio norabidea?

VI. Jainkoak gidatzen du eboluzioa. Jainkoak kreatu du mundua eta bere lankidetzat hartu gizona. Egia da bekatuak Jainkoaren obra lardazkatu duela, baina Hark urratuak berriz josi ditu, Kristo eta Elizaren bidez. Gaitzaren indarrak ez dira nagusituko. Kristok bakarrik argi dezake bizitzearen misterioa.

VII. Kristo berpiztuaren bizitzean parte hartzera deitua da fededuna. Horretarako dugu Eliza eta Elizan den oro (igandeko meza, sakramentuak, Biblia, Liturgia, eliz artzainak etab.).

Sobra ere badakigu laburpen murriz eta ziztrin honetan ez dugula liburuaren mami joria sartu. Edukinaren zirriborro bat eskeini nahi izan dugu, haatik, besterik ezean. Badira liburuan mila ohar eta xehetasun argi, adibide sarkor etab., aipatu gabe uzten ditugunak. Nahi-eta-ez, liburuaren hezurra-jeaz askiko dugu.

Aitortu behar dut, bestalde, liburuska ez dela irakur erraza. Enetzat, behintzat, ez da izan, eta uste dut hala hala gertatuko zaiela Hegoaldeko euskaldun gehienei. Askoz ulerterrazago dira enetzat, adibidez, lapurdiera zaharrez idatzitako libururik gehienak. Gertakari honen arrazoa —arrazoi bat behintzat— honako hau dela uste dut, hots, Lafitte jaunaren euskara guztiz dialektala izatea, herrikoa, eskualde jakin bateko txokoan kokatua eta han sendo erroztatua egotea. Baina, jakina, hango bertako ez denarentzat zail eta arrotz egiten da.

Gainerakoan, Lafitte jaunaren euskara guztiz joria da hitzetan, itzuliketan etab. Hitz eta itzulika horiek herritik hartuak dirudite, baina herri hau eskualde mugatu bat izan ohi da, gehienetan. Eta maizenik, hango laburdura eta aldaerekin ematen ditu, gainera. Orduan, bistan da, hango ez diren euskaldunentzat arrotz eta ulergaitz izan behar. Sorketa propioak eta ausartak ere —hizkuntzaren barnetik atereak, noski—, liburu honetan ugari direla

esango nuke. Zernahi gisaz, liburua euskal fruitu jatorra da, dudarik gabe. Idaztankera guztiz trebea du, txairoa eta sotila. Esaldiak motx eta laburrak. Lafitte jauna ez da periodo luze eta korapilatuen zale.

Nazio-artekeo kultur hitzen tirriarik ere ez zaio somatzen. Herrian zabaldurik direnak, horiek bai, erabiliko ditu lotsarik gabe. Erdaratiko hitzak, herriak aspaldidanik etxekotuak dituenak, horiek, bai, besteak bezain jatorritzat joko ditu, baina euskararen ernal iturriari uko egin gabe.

Herriaren pleguetara biltzea eta plegu horien barnean kultura egitea, hori da, esango nuke, Lafitteren bidea, berak gogoko duena. Hortik heldu zaio jatorrasun ezin ukatua, hortik zail izatea ere. Hona adibide bat edo beste: *Historia* hitza ez duzu liburuskan aurkituko; beti *ixtorio*, nahiz eta hitzaren esanahia herriaren ahotan eta Lafitterenean erabat berdina ez izan. *Zentru* esan beharrean *erdi-leku* esango dizu. Beti *esperantza*, *itxaropen* behin ere ez; beti *loria*, *ez aintza*; *apezpiku*, *ez gotzai*; *alegrantzia*, *ez alaitasun*; *gerla*, *ez guda*, etab.

Ez dugu hemen lekurik liburuskaren azterketa erabatekoa egiteko. Zenbait puntu ukituko ditugu soilik, eta horiek ere pixka bat gaingiroki. Hitz edo esaldi baten segidan jarritako zenbakiak orrialdea esan nahi du; baina, jakina, hemen aipatu gabeko beste leku batzuetan ere aurki daiteke agian hitz edo esaldi hura bera. Horrek esan nahi du gure bilduma ez dela alde guztiz osoa izan.

Jasotako fitxak hiru sailetan sailkatu ditugu, era honetara: I Hiztegiari buruzkoak, II Esaldi eta itzulikei buruzkoak, III Morfosintasiari buruzkoak.

Lehen saila da luzeena. Beharrik, hitzen esanahia jakiteko, hor dugu Lhanderen hiztegia, neurri handi batean Lafitte berak egina izan dena. Zenbait hitz guretzat arrunt eta ezagun direnak ere jaso ditugu, baina liburuan esanahi edo ñabardura bereziren bat dituztelako.

I. HIZTEGI ADIBIDE BATZUK

Abantzu 48.	Aldakuntza 53.
Abrekeria 38.	Aldapen 42.
Adixkidantza 57.	Alderdika 40.
Adostu 44.	Alegera 17, 28.
Afruskeria 68.	Alegiazko 11.
Ahopiaka 11.	Alegrantzia 27.
Aiher 28.	Alha 50.
Aintzinamendu 35.	Alta 48.
Aintzinatu 36.	Amorratu 57.
Aise 24.	Apailatu 23, 54, 56, 64.
Aiseria 8.	Aparentzia 69.
Ala 7, 46.	Apurtu 27.

- Ar(r)ats 58, 64.
 Ar(i) 16, 46.
 Ar(i)tu 30, 51.
 Arrailleria 41.
 Arrakesta 69.
 Arraposki 6.
 Arrapostu 14, 50, 53.
 Arrasta 40.
 Arrunxko 44.
 Asentatu 66.
 Asmatze (subst.) 54.
 Asmu 62, 69.
 Astoki 38.
 Ateka 22.
 Atxeman 28.
 Atzarri 31.
 Artzartu 12.
 Auhén 24.
 Axola 62.
 Axolatu 41, 46.
 Azkartu 35.
 Baitezpada 44.
 Baitezpadako 30, 60.
 Baliatu 16, 22, 66.
 Balio 23.
 Barrandatu 40.
 Batasun 56.
 Batetaratu 62.
 Behako 32.
 Behar (adj.) 70.
 Behar bada 14.
 Beharrik 56, 66.
 Bekaizkeria 28.
 Bekatoros 56.
 Berantiar 35, 47, 68.
 Berdura 54.
 Berendu 22.
 Bertzalde 69.
 Bertzenaz 36.
 Betan 28, 31.
 Bezanbat 36.
 Bilakatu 26, 28, 30, 54.
 Bildu 47, 56.
 Biribilkatu 70.
 Bitzikeria 70.
 Bizkitartean 8, 31, 53, 69.
 Bultatu 11.
 Bururatu 35, 58.
 Burrustan 46.
 Daldara 41.
 Deplauki 23.
 Dirdiratsu 32.
 Dizipulu 57.
 Dohatu 12, 50.
 Dolugarri 36.
 Durduzatu 62.
 Eite 23.
 Egitate 18, 46.
 Ekai 41.
 Ekei 12.
 Elgarretaratu 65.
 Emendatu 35, 36, 54, 69.
 Enbrasu 31.
 Engoitik 15.
 Entseatu 32.
 Eragintza 32.
 Erain, erein 27, 46, 58.
 Erakimendu 46.
 Erasi 50.
 Erasiatu 19, 68.
 Erdeinatu 41, 66.
 Erdainu 41.
 Eratziki 19, 36, 41.
 Erreboluzione 60.
 Errege-bide 8.
 Errespetu 23, 51.
 Erresuma 8.
 Errezelu 27.
 Erronka 47.
 Eskergabe (subst.) 56.
 Eskukaldi 58.
 Espantu 60.
 Estekatu 30.
 Etor-arazi 50.
 Etsimendu 64.
 Etxekotu 60.
 Ezinbertzezko 50.
 Fagoratu 36, 70.

- Feiria 43.
 Fiersko 23.
 Flux 30.
 Froga 35.
 Funditu 16, 32.
 Funski 24, 41.
 Funtsean 50.
 Funtsez 30.
 Gaitzitu 18.
 Galdeka 66.
 Galkeria 34.
 Garraitu (sic, garaitu) 34.
 Gertaldi 47.
 Gibelada 44.
 Gibelka 40.
 Gibelkari 35.
 Gibeltiar 68.
 Gobernari 51.
 Gogodun 50.
 Gogoetatu 8, 22.
 Griñatu 8, 16, 19.
 Gudu 47.
 Guhaur 31, 57.
 Hala-hala 30, 40.
 Harrotu 56.
 Hartze 25, 30.
 Hatz 50.
 Haurride 57.
 Hauteman 11, 23, 44.
 Hautu 31.
 Haztamuka 44.
 Hein 47.
 Hel-arazi 38, 64.
 Herrestan 27.
 Hertsatu 68.
 Hertziki 27.
 Hets arazi 7.
 Histu 24.
 Hots! 54.
 Hozitu 28.
 Huiatu 23.
 Ibilkari 56.
 Idekidura 8.
 Igurikatu 60.
 Ihardoki 8, 16, 23, 40.
 Iharrosi 24.
 Ikertzale 62.
 Ikuspegi 62.
 Ikuspen 50, 62.
 Injenieur 72.
 Inkaminari 50.
 Irabiamendu 12.
 Irabiatu 44.
 Iragaitte 70.
 Iraka 38.
 Iraultza 60.
 Irrisku 41.
 Itzulipurdikatu 68.
 Itzuri 46.
 Ixtinga 40.
 Ixtoriatzale 45.
 Ixurki 27.
 Izaite (subst.) 53.
 Izari 20, 62.
 Izarbel 15, 54.
 Izpi 48.
 Izpiritual 48.
 Jainkostatatu 72.
 Jakitate 35, 62.
 Jakitu 6.
 Jalgi 22.
 Jali 50, 54.
 Jali arazi 12.
 Jarraikile 8.
 Jarraikitzaile 65.
 Jazarri 38, 56.
 Jeinu 58.
 Jelosia 34.
 Jendarte 50.
 Joile 11.
 Jorratu 38.
 Jujatu 31.
 Jukutria 32.
 Kabale 56.
 Kalipu 16.
 Kanbiamendu 36.
 Kantitu 44.
 Kartsu 62.

- Kexatu 18.
 Kirol 20.
 Komuniatu 66.
 Komuniatzale 66.
 Kondarazi 47.
 Konparazione 48.
 Kordokatu 58.
 Kotsu 23.
 Kukundu 16.
 Kuraie 47.
 Kurubilkatu 8.
 Kurritu 66.
 Kurrunkatu 68.
 Kutsu 27, 38.
 Laiko 54, 60.
 Lanbrotu 16.
 Lanjer 34.
 Lankide 54.
 Lanotsu 11.
 Lantzale 54.
 Lardazka 50.
 Larritu 35.
 Laudatu 68.
 Lausengatu 38.
 Lauso 49, 50.
 Lehertu 36.
 Leinu 56.
 Lekuko 57.
 Lekutu 20.
 Lemami 56.
 Lerratu 52.
 Libro (adj.) 58.
 Limar 31.
 Litamendu 32.
 Loria 14.
 Lorioski 32.
 Luzaz 62.
 Malestruk 11.
 Manatu 54.
 Markatu 58.
 Matalaza 24.
 Medio 27.
 Mehats 68.
 Mehe (subst.) 31.
 Mendebal 38.
 Mendratu 38.
 Menturatu 62.
 Mesprexatu 14.
 Miliar 48.
 Miragarri 46.
 Miresgarri 35, 54.
 Mixteriozki 65.
 Molde 60.
 Montoin 47.
 Munstrokeria 64.
 Muskil 68.
 Nausien 32.
 Nola nahika 69.
 Nota 27.
 Ohorezki 70.
 Oihukatu 68.
 Okaztatu 31.
 Oldar 11, 31.
 Olde 14.
 Onetsi 12.
 Ontsalarik 41.
 Ordain 28.
 Ordaindu 40.
 Ordainkatu 7.
 Ordari 57.
 Ori! 50.
 Orrona 32.
 Osagarri 22.
 Oste 48.
 Pairakor 20.
 Parropia 68.
 Partekatu 35, 56, 66.
 Paso! 62.
 Patarraka 24.
 Perrentean 41.
 Pikor 41.
 Piru 41.
 Plegu 31.
 Polliki 57.
 Populu 36, 38, 56.
 Poxolu 31.
 Prestuki 14.
 Probetxuki 70.

Prosesione 70.
Punpa 16.
Salatu 62.
Salbu 50.
Sapa 30, 60, 70.
Sarraskitu 17.
Setiatu 60.
So bat 32.
Sofrikario 27.
Soleitu 51.
Sorraio (sic) 22, 24.
Soto 16.
Sustatu 32, 60.
Sustatzale 56.
Talendu 58.
Tarrapataka 6, 30.
Tenore 56.
Trebesatu 32.
Trialdi 43.
Tristezia 17.
Urrurik 27, 30.
Uzkaildu 68.
Uzkuur 8.
Xanfarin 23.
Xeheria 69.
Xerrenda 48.
Xertatu 72.
Xingola 46.
Xixta 32.
Xuritu 64.
Zerbitzarazi 22.
Zerbitzatu 31.
Zilin 36.
Zinkurin 24.
Zirta 15.
Zirtzilkeria 33.
Zorte 15.
Zozko 46.
Zuhurtzia 35.

II. ZENBAIT ESALDI ETA ITZULIKA BEREZI

Agonia iraunkorraren buru 64.
Ahalaz 28, 47.
Ahantz-orduka 68.
Ahoko-artatzaile 41.
Alde bat kokatua dago 30.
Aldean (irabazien -) 7.
Aldereren bertze 32.
Aldi bakotx 46.
Aldian aldiko 14.
Alegia deus ez 23.
Alegiazko girixtino 31.
Alferrik utzi 58.
Alta bada 30, 32, 38.
Argi-tortxo 46.
Arrotz izan 60.
Arta hartu 20, 22, 27.
Askiko baitira 7.
Aurki-berri 41.
Auzoena dugun laguna 60.
Badarik ere 54.
Badea bide onik? 47.
Badea hor gizatasunik? 38.
Badea hoberik? 36.
Bagaude bakarrik ea... 8.
Bali izan 41.
Bana-bertze 44.
Barna gelditu 31.
Behar ordu 20, 34.
Behatzeko orde 20.
Bere baitarik 16, 20.
Bere nahitarat 54.
Bere premia eman 70.
Beren gain jarri 8.
Berex izan 15.
Berriki arte 40.
Besta-berri kari 70.
Bertzek bezala egitekotan 60.
Bide-nabar 44.
Bizi batekilako batasuna 31.
Bide berri-keta 69.
Bizi-emendio 12.
Bizi funtsik ez 31.

- Bizizko mezu 14.
 Bular-ginar 36.
 Buru eta beharri sartu 70.
 Buru-fuin 50.
 Buru-hertsi 40.
 Buruz-buru 31.
 Den gutienik 62.
 Egia dariogula 52.
 Egina prest 28.
 Eginbideen heinerat 32.
 Elgarrekilakoa 32.
 Estekatzen ahal nitzaion Norbait bi-
 latu 34.
 Erne-ernea 69.
 Erran-berriek 62.
 Erran nahi baita 54, 66.
 Erreberri-egun 65.
 Ezdeus bat 30.
 Ez-deusetako iduki 24.
 Ez-deusetaratu 51.
 Ez dira xuxen ari 66.
 Ezinago urrun 58.
 Eztabada neketan 72.
 Famak kurritu du 69.
 Funts handiko 72.
 Funtsezko geroa 60.
 Gainez-gaineko 62.
 Gauden Jesusi 28.
 Gerlaz geroz 38.
 Gibelaz itzuli 56.
 Gibelerat tiratu 15.
 Gisa bat edo bertze 19.
 Gisa guziez 35.
 Gizonaz azpiko izaite batzuk 38.
 Gogo hartua izan (*du ad.*) 23.
 Gogor egin 40.
 Gogotik pasatu 51.
 Goititu orde 38.
 Gostaia gosta 23, 47, 70.
 Goxoa-goxoa 8.
 Gure meneko emana 62.
 Haize-zirimola 32.
 Haizu izan 69.
 Hala beharrez 20.
 Hala nola 46.
 Har-uzkako *manerak* 46.
 Haratago 62.
 Hari hortako girixtinoentzat 31.
 Harra iduri 30.
 Hautuz gauza bakar bati emanak 41.
 Hein batean 54.
 Hemen gaindikoak baino miletan sa-
 noago 60.
 Heriz-herri 56.
 Hizka-mizka ari 30.
 Hortan gireia? 54.
 Huna, konparazione, 38.
 Ideki ... hetsi 31.
 Iragaitekoak dauzka 23.
 Irri egingarri 12.
 Itxurak emaiten duenaz bertze deus
 64.
 Izaite oso bat 32.
 Kargu abantailos-keta 47.
 Kasu eman 70.
 Kidekoan bizi 23.
 Komunixten obra guzieren etsaitzea
 51.
 Jainkoa...nausi ezarri 60.
 Jainkoak beira! 41.
 Jauzi egin 47.
 Jesu kristori...atxiki 28.
 Laketa izan 70.
 Lehenaren bete 19.
 Meneko hartu 40.
 Muga jo 16.
 Mundua ixtorio baten jabetzat eduki
 62.
 Muntatzen ari daukute 32.
 Mutur egin 8.
 Nausi legezko 69.
 Nausi paratu 23.
 Noiz behinka 62.
 Nola-nahika 51.
 Nonbait han 47.
 Nor bere hartarik ari 38.
 Nora-bide 46, 48, 51.
 Nun noiz nola zer 54.

- | | |
|-------------------------------------|---------------------------------------|
| Ondar urte hautan 69. | Saka-saka 36. |
| Onerako guduaren gakoa: amodioa 60. | So egin 47, 51. |
| Ongi-izanari ohartua 22. | Sortu berri jakitate eta teknikak 58. |
| Oro bil 58. | Sortze eman 12. |
| Orotako Biltzar 57. | Trabak trabatei 18. |
| Oroz gaineko 58. | Tratu gaixto 36. |
| Oroz gainetik 11, 20, 35, 36, 47. | Urratuak berriz josi 56. |
| Oroz lehen 8, 65. | Uste dute...oro salbu direla! 70. |
| Oto-zain 18. | Uzkail arazi 40. |
| Ozkaz-ozka 44. | Xedetan izan 54. |
| Parte eman 65. | Xutik eman 22. |
| Parte hartu 54, 70. | Zer balio du? 36. |
| Plan karta 18. | Zer gerta ere 31. |
| | Zer zen egiteko 56. |

III. MORFOSINTASIAZ ZERBAIT

Ahal-en erabilkeraz:

- Ez ditu bere dizipulutzat...ezagutzen ahal 31.
 Elgar laguntzen ahal dugu 32.
 Ez zituela deusek aldatzen ahal 43.
 Ez lioke sortzea emaiten ahal? 50.
 Ez du... asmatzen ahal 51.
 Ez dela... segurtatzen ahal 60.
 Ez da otoitzik egiten ahal 68.
 Ez da biltzarrik bakean bizitzen ahal 69.

Ala-ren erabilkeraz:

- Gorputzeko ala arimako 58.
 Gizon ala emazte 7.
 Ala...ala 11, 20.
 Ala...ala...ala 23.

Aldean:

- (r)en — 12.

Ari:

- Ari dituen 7.

Atomiko:

- Atomiko indarra 7. Baina Indar atomiko 36.

Ber:

- N ber 14, 28, 57, 65.

Bide:

- Itzultzen bide ditu 69.

Buruz edo buruzko-ren enplegua:

- Ra(t) deklinabide kasuaz 35, 38.
 -Ri deklinabide kasuaz: 7, 11, 19, 27, 28, 30, 31, 46.

Eta, aditz partizipio ondoan kokatua. Adibidez: *Hil eta, Handitu eta* 11, 30, 31, 60.

Girixtino hitzaren kokaeraz:

- Girixtino-eginbide 60.
 Langile girixtino 60.
 Lur girixtino 60.
 Girixtino-bidetarat 62.

Girixtino fedear kanpo 64.
 Girixtino erlisione 64.
 Girixtino bizia 70.

Gizon, eta ez giza-, hitz elkarke-
tan:

Gizon-bizia 14.
 Gizon-oste 48.
 Gizon-arraza 54.
 Gizon-eginbide 60.

Gutarteko 56.
Hain...nola 8
Hain...nun 20, 28.
Hainbertzetaraino...nun 56.

Heinean:
 -N — 60.

Ikasi-berri 62.

Judu hitzaren kokaeraz:
 Populu judu 57.

Karietarat:

-Ren — 53.

-Lako atzizkia:

Begiratuko direlako esperantzan 54.

Larri-larria (adv.) 62.

Medioz:

-En — 12.

Nahi balin bazira 57.

Nola 58.

Non ez den abantzten 31.

Nork ere 20.

Nun ere 12.

Nun ez ziren galtzen 44.

Pondutik:

-N — 23, 31.

Zonbat ere...eta bein berean 20.

Perpauk kausalei buruz oharra.—Perpauk kausalei bagagozkio, hona hemen gure azterketaren ondorioak:

Ezen 5 aldiz ageri da: 11, 27, 33, 53, 68.

Lakotz 5 aldiz: 17, 22 (bi aldiz), 41, 56.

Naz geroz 5 aldiz: 40, 54, 58, 60, 62.

Alabainan (kausal kutsua somatzen zaio, nahiz eta ez beti garbi) 6 aldiz: 16, 17, 32, 40, 44, 68.

Lakoan (kausal kutsua somatzen zaio) 3 aldiz: 24, 41 (bi aldiz)

Zeren. Lapurtar zaharretan hain ugari azaltzen den juntagailu hau liburuskan ez da behin ere azaltzen.

Bait- aurrizkia. Noiznahi eta zernahitarako erabiltzen du. Mendebalekoentzat zaila da oso aurrizki honen zeregin guztiak mugatu eta sailkatzea. 39 aldiz agertzen da liburuskan (galdetzaile anaforiko barekin erlaziotan dagoeneko kasuak kontatu gabe). Hona hemen orrialdeak: 7 (hiru aldiz), 8, 10, 12, 15, 20, 22, 23, 28, 30, 31, 32, 38 (bi aldiz), 54 (bi aldiz), 66 (bost aldiz), 68 (hiru aldiz), 72. Oker legoke, ordea, pasarte horiek guztiak kausaltzat joko lituzkeena. Askotan erlatibo huts-garbiak dira. Zenbaitetan, bai, kausal kutsua dute. Beste batzuetan, zein sailletan sartu behar diren esatea ez da erraza.

BUKATZEKO

«Bon pain de ménage plutôt que pâtisserie»: Jujamendu hau egin zuen Lafitte jaunak Salvat Monho-ren poemei buruz (LAFITTE, *Poèmes Basques de Salvat Monho*, Editions Ikas, Bayonne 1972; 21. orriald.). Banago gauza bera ez ote den esan behar liburuska honi buruz. Hizkeraz jatorra da oso, nahiz eta, hegoaldekoentzat bederen, ehotzen zaila izan. Zailtasun hori heldu zaio, baitipat, txoko jakin bati mila estekaz estekatua egotetik. Mamiari bagagozkio, mezu bat dakar. Eta hau da mezua: fedeak soilki argi lezakeela bizitzearen misterioa.

Arantzazun, Maiatzak 24, 1982.

RESUMEN

«Idek eta zabal gogo-bihotzak» (Abre y dilata mente y corazón) es el título de un opúsculo publicado por Lafitte (bajo el seudónimo de P. Ithurralde) en 1974. Está dirigido a los jóvenes. En siete enjundiosos capítulos trata de esbozar la actitud con que el cristiano debe vivir hoy su fe, teniendo en cuenta los retos y exigencias que la civilización actual plantea a ésta. El artículo ofrece un breve resumen del opúsculo y un estudio del mismo desde el punto de vista lingüístico. Subraya una de las características del autor: la de escribir en un euskera muy castizo y muy vinculado al pueblo, pero de una determinada zona, que es lo que le hace ser relativamente difícil para la comprensión general. Por lo demás, reconoce que el estilo de Lafitte es también rico en formaciones nuevas, obtenidas de la entraña de la lengua. Finalmente, se ofrece un espécimen del vocabulario, giros y construcciones que se hallan en el citado opúsculo.